
20 23

ARRITZAGAKO HARAN GLAZIARRA ETA PARDELUTZEKO ZIRKUA




Arritzaga haraneko eta Pardelutz zirkuko kokapena.

Euskal Autonomia Erkidegoan, glaziarren aztarna argienak Aralar mendilerroan aurkitzen dira. Beste puntutan ere fenomeno glaziarrak sortu zitezkeen, baina aztarnak higaduraren eraginez ezabatuko ziren.


Gaur egun, Aralar mendilerroko Gipuzkoako sektorean, ikus ditzakegun aztarnak sortu zituzten glaziarrak 50.000 eta 20.000 urte arte ingurukoa dira BP (orainaldia baino lehen = 1950) eta ziur aski horiek ez ziren oso tenperatura baxuen eraginez sortu, baizik eta tokiko fenomenoen eraginez, besteak beste; elurte handiak, izotz kopuru handia pilatu zutela eta izotz mingainak sortu zituztela.

Arritzaga Haranak SE/NW norabide bat dauka, eta bertako goiko aldean (Pardelutzeraino), haran glaziarren ohiko U formadun sekzioa aurki dezakegu. Jarduera handiena izan zuen unean, kalkulatu da glaziarrak 4 km hedadura eta 70-100 metroko lodiera izan zezakeela. Bere ibilbidean zehar, zenbait morrena utziz joan zen (harrien gordailuak, etab. glaziarrak arrastatuta). Horiek, gaur egun, oraindik kontserbat-



Arritzaga haraneko eta Pardelutz zirkuko glaziarrei buruzko hipotesia bere hedadurarik handienean.

Oinarrizko kartografia: Itzalen mapa 2012 + nibel kurbak. Iturria: Eusko Jaurlariza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.




Pardelutz zirku glaziarra, ekialdetik ikusita. Ortoargazkia 2010 Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco. Google. Earth. Ikus daitezke, lehen planoan, Arritzaga jatorri glaziarreko harana eta Pardelutzeko bordak.


zen dira (adibidez, Burutzainen). Glaziar nagusi honek ezkerraldeko beste haran edo zirkuetako izotz ekarpenak jasotzen zituen, horien artean, Pardelutzekoa.

Pardelutzeko zirkoak haran motzeko itxura da. Hura Arritzagako haranerantz zuzentzen da, eta mendebalderantz, gailur-lerro batek mugatzen du (1300-1350 m altuera) Ganbo eta Pardarri mendiek mederatuta (1400 m). Hura elurra pilatzeko zonalde gisa erabiltzen zen ondoren izotz bilakatzeko bere pisu propioaren eraginez eta elur hori Arritzagarantz botako du haran eseki moduan. Bere luzera 600 metro ingurukoa da.

Gehiago jakiteko: Glacial morphology and evolution in the Arritzaga valley (Aralar range, Gipuzkoa) / L. L. Rico Lozano. Rev. Cuat y Geomorf. 25 (2011).



Irudiaren ezkerraldean Pardelutzeko zirku glaziarra ikusten da; eskuinaldean, Arritzaga haraneko sektore bat. Itzalen mapas 2012 + nibel kurbak 5 metroz behin. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 576887 m // Y: 4761739 m// Z: 1196 m.(puntu gorria).



Pardelutz zirku glaziarra. Ortoargazkia 2015 +Itzalen mapa 2012 + nibel kurben itxurako erliebea 5 metroz behin. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco. geoEuskadi.